

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERABEITIKO UDALA

2025eko maiatzaren 12ko osoko bilkuraren erabakiaren laburpena, zeinaren bidez onetsi baitzen kultura elkarte eta kirol klubei kultura eta kirol arloan dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia

BDNS (Identif.): 833816.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/833816>).

KULTURA ELKARTE ETA KIROL KLUBEI KULTURA ETA KIROL ARLOAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2025EKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUAK

1. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea hau da: Erriberabeitiko udalerrian kultura, gizarte eta kirol arloekin lotutako ekimenak, programak nahiz jarduerak gauzatzeko Erriberabeitiko Udalak 2025. urterako emango dituen dirulaguntzak arautzea. Herritar guztien bizi maila hobetzen lagundu behar dute ekimen, programa eta jarduera horiek, bai eta Erriberabeitiko Udalak bere jarduketa eremuetan aurreikusitako helburuak lortzen ere.

2. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN ZERBITZU ETA KONTZEPTUAK.

Diruz lagunduko dira irabazteko xederik gabeko elkarteek edo klubek Erriberabeitiko udalerrian kirol eta kultura arloetan egin edo sustatu dituzten dinamizazio proiektu eta jardueretatik eratorritako gastuak, hain zuzen ere, honako arlo hauetakoak:

1. Gizartea eta komunitatea sustatzeko esku hartzeak:

Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna.

Gizarteratzea edota kulturartekotasuna.

Hirugarren adina.

Haur edota gazteentzako jarduera hezigarriak, aisia edota astialdia.

Osasun prebentzioa.

Etengabeko prestakuntza eta boluntarioritza sustatzea.

Sentsibilizazioa: ingurumenari lotutakoa, etab.

2. Kultura sustatzeko esku hartzeak:

Arte prestakuntza eta sormena.

Herritarrek parte hartzeko kultura jarduerak.

Zabalkunde kulturala: hitzaldiak, monografikoak, erakusketak, etab.

Bisitaldi kulturalak (sarrerak baino ez; joan-etorriak ez).

Diruz lagundutako jarduera edo programa gauzatzeko materiala eskuratzea.

3. Kirola sustatzeko esku hartzeak:

Kirol jarduerak.

Kirol ekitaldiak antolatzea eta egitea.

Oinarriko kirola sustatzea.

Kirol arloan diharduten legez eraturako elkarte eta taldeek materiala edota ekipamendua erostea, diruz lagundutako jarduera edo programa gauzatzeko. Gehienez 4 euro elkarteko kide bakoitzeko.

Kirol monitoreen gastuak.

Instalazioak alokatzeagatikoko gastuak.

Monitoreak ekitaldietara joatearen gastuak (ez jarduera edo entrenamendu lekura egiten den ohiko joan-etorria).

Erriberabaitiko udalerrian egiten diren gizarte, kultura edo kirol sustapeneko esku hartzeek 2025eko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean eginak izan behar dute.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

Herriko jaietako egitarauaren barruan edo udalak eta elkarte eskatzaileak sinatutako hitzarmenen ondorioz diruz lagundutako jarduerak.

Norberak erabiltzeko materialen, txangoen, bazkarien, luntxen, dieten eta abarren gastuak.

Elkartearen barne funtzionamenduaren eta kudeaketaren gastu materialak, eta elkartearen jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak Elkartearen web orria mantentzeko gastuak.

3. ERAKUNDE ONURADUNAK.

3.1. Dirulaguntza honen onuradun izan ahalko dira irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, behar bezala erregistratuta badaude Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera, eta beren programak eta jarduerak Erriberabaitiko udalerrian gauzatzen badituzte.

Erakunde onuradunen betekizunak:

1. Haien jardun esparrua Erriberabaitiko udalerria izan behar da.

2. Elkartearen egoitza Erriberabaitiko udalerrian egon behar da.

3.2. Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartzeko, erakunde eskatzaileek egunean izan beharko dituzte zerga eginbeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Erriberabaitiko Udalarekikoak. Horrek hala izan beharko du eskabidea aurkeztu den unean, eta hala izaten jarraitu beharko du dirulaguntza emateko prozesu osoan (dirulaguntza ematea, betebeharra aitortzea eta ordaintzea).

3.3. Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan beren antolaketan eta jardueren programazioan emakumeen edo gizonen presentzia edota gizon eta emakumeek berdintasunez parte hartzea eragozten duten erakundeak.

3.4. Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako inguruabarretakoren batean daudenak.

4. AURREKONTU KREDITUA.

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak aurrekontuko baliabide erabilgarrietara moldatuko dira eta honako aurrekontu esleipen honi egotziko zaizkie:

Jarduera soziokulturalak: 1.000,00 euro, Erriberabaitiko Udalaren 2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorreko 334.481.014 partidaren kontura.

Kirol jarduerak: 7.600,00 euro, Erriberabaitiko Udalaren 2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorreko 341.481.010 partidaren kontura.

5. IZAPIDETZEA.

5.1. Aurkezteko epea.

30 egun izango dira eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egu-netik aurrera.

5.2. Dokumentazioa.

Deialdiarekin lotutako agiri guztiak eskura egongo dira udal bulegoetan, jendearentzako ordutegian, eta <https://www.riberabaja.eus/eu/inicio-eus> web orrian.

5.3. Eskaerak eta izapidetzea.

5.3.1. Eskaerak 5.1 oinarrian xedatutako epean aurkeztu behar dira udalaren bulegoetan nahiz lege ezarritako beste edozein modutan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, dokumentu hauek erantsita:

Eskaera, I. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera, eta elkartearen lehendakariak edo jarduteko ordezkariak daukala egiaztatzen duen pertsona batek izenpetua. Eredua eskura-garri dago udaletxean eta webgune honetan: <https://www.riberabaja.eus/eu/inicio-eus/>.

Ordezkaritzaren egiaztagiria eta ordezkariaren NANaren kopia.

Estatutuen fotokopia, eta elkarte lege eratu eta elkarte eta erakundearen erregistroan izena emanda dagoela frogatzen duten agiriak. Dirulaguntzak lehen aldiz eskatzen dituzten elkarteek edo 2025ean estatutuak aldatu dituztenek aurkeztu behar dute soilik.

Egindako jardueren justifikazio memoria erraztua, honako hauek jaso behar dituen: jar-duera, parte hartzaileen kopurua, parte hartzaile horietako zenbat diren udalerrikoak, adina, jardueraren data, eta jarduera horren gastuen eta diru sarreraren balantzea.

Gastuen justifikazioa, ordainduta badaude, deialdi honen 10. oinarrian araututakoaren arabera.

Erakundeak xede bererako jaso edo eskatu dituen dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta nork emana den adierazita (II. eranskina).

Diruz lagundu daitekeen ekitaldiko gastuen eta diru sarreraren zerrenda zenbakitua, jardueraka banakatuta (III. eranskina).

5.3.2. Aurkeztutako dirulaguntza eskaera balioesteko egokitutako jotzen dituen argibide eta doku-mentu guztiak eskatu ahal izango ditu udalak.

5.3.3. Eskabideak ez baditu betetzen deialdiaren arauan ezarritako betebeharrak, organo eskudunak erakunde interesatuari eskatuko dio zuzendu dezala akatsa, eta gehienez ere 10 egun naturaleko epe luzaezina emango dio horretarako, eta adieraziko dio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela joko dela, aldez aurretik ebazpena hartuta, zeina Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako baldintzak betez hartu beharko baita.

6. BALIOESPEN IRIZPIDEAK.

6.1. Erriberabeitiko Udalak jarraian zehazten diren irizpideak hartuko ditu kontuan, toki era-kunde eskatzaileei dirulaguntzak eman edo ukatzeko:

Aurkeztutako programak. Gehienez 5 puntu:

Egindako jarduera kopurua: 0,5 puntu jarduerako.

Bazkide kopurua (puntu 1 erroldatutako 5 bazkideko, eta puntu 1 erroldatu gabeko 15 baz-kideko): gehienez 5 puntu.

Programen jarraitutasuna (0,5 puntu urteko): puntu 1 elkarte edo entitatea sortu zenez ge-roztiko urte bakoitzeko: gehienez 5 puntu.

Jarduerak udalerrian duten eragina (zenbat pertsona jotzen den izan daitezkeela programaren edo jardueraren onuradun): gehienez 10 puntu.

Programak udalerriaren dinamizazioari egiten dion ekarpena: gehienez 5 puntu.

Programaren originaltasuna, edo udalerrian horren antzeko programa edo jarduerarik ez izatea: gehienez 5 puntu.

Jarduerak edo programak euskararen aldeko eragina edo trataera izatea: gehienez 3 puntu.

Genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea jarduera egitean: gehienez 2 puntu.

6.2. Balorazioaren ondorioz lortutako puntuak bat etorriko dira aplikazio ehuneko honekin:

LORTUTAKO PUNTU KOPURUA	EHUNEKOA
1-10 puntu	ehuneko 1 eta ehuneko 20 artean
11-20 puntu	ehuneko 21 eta ehuneko 40 artean
21-30 puntu	ehuneko 41 eta ehuneko 60 artean
31-40 puntu	ehuneko 61 eta ehuneko 80 artean

6.3. Eskatzaile bakoitzeko baterako zenbatekoa ezin da izan erakunde eskatzaile bakoitzeko (kirol nahiz kultura elkarteak) eskatutakoaren ehuneko 80 baino handiagoa, dirulaguntzaren xede diren programa edo jardueren kopurua edozein dela ere.

6.4. Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk xede bererako eman ditzakeenekin. Nolanahi ere, dirulaguntzetatik eta gainerako iturrietatik lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako programaren edo jardueraren guztizko kostua baino handiagoa izan.

6.5. Artikulu honetan xedatzen diren mugen arabera zehaztuko dira diruz laguntzeko moduko jardueretarako zenbatekoak, betiere kontuan izanik ez dela diruz lagunduko kasu bakoitzean kirol klubek edota kultura elkarteek aurkeztutako gastuen ehuneko 80 baino gehiago eta ezingo dela inolaz ere eman elkarteak bere jardura guztietarako duen urteko defizita baino dirulaguntza handiagoa.

6.6. Kasu guztietan, baldin eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko ehunekoak murriztu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie jardura guztiei.

6.7. Nahiz eskaerarik aurkeztu ez delako, nahiz bete beharreko baldintzak betetzen ez direlako, jardura lerroetakoren batean zuzkidura agortzen ez bada, soberan geratu den zenbatekoa erakunde onuradunei esleitutako zenbatekoari gehitu ahal izango zaio, oinarri hauetako 8. artikuluan xedatzen den instrukzio organoak egiten duen proposamenaren arabera.

7. EMATEKO PROZEDURA.

Norgehiagoka bidez emango dira dirulaguntzak; horretarako, aurkeztutako eskaerak alde-ratu egingo dira, eta haien arteko lehentasuna zehaztuko da aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera. Baloraziorik handiena lortu duten eskaerei esleituiko zaizkie dirulaguntzak, eta haien zenbatekoa ezingo da izan deialdiaren oinarri espezifikotik jasotako aurrekontu horridurarena baino handiagoa.

8. INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA.

8.1. Instrukzio organoa Añanako Kuadrillako Kulturako teknikaria izango da, eta datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen ekintza guztiak egingo ditu ofizioz. Eskaerak izapidetzeko onartu ondoren, kasu bakoitzean beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuta, zerbitzu teknikoak balioespen txostena eta ebazpen proposamena emango ditu, deialdiaren 6. oinarrian ezarritako irizpide teknikoei jarraituz.

8.2. Añanako Kuadrillako Kulturako teknikariak ebazpen proposamena egingo dio alkateari, ebazpena eman dezan.

8.3. Dirulaguntzak emateko organo eskuduna alkatea da, baina eskuordetza eman diezaioke zinegotzi ordezkariari.

9. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.

9.1. Prozedura hiru hilabeteko epean ebatzi behar da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik eman ez bada, ezetsizat joko da dirulaguntza eskaera.

9.2. Erriberabeitiko Udalak erakunde eskatzaileei eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu dien jakinaraziko die. Behin dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazitakoan onuradunak ez badio berariaz uko egiten 10 egun naturaleko epean, onartutzat joko da.

9.3. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko erabakiak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka, edo oinarri hauen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zuzenean, administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegian, bi hilabeteko epean, argi taratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

9.4. Dirulaguntza emateko erabakian hauek zehaztu behar dira:

- a) Dirulaguntzaren xedea, eta zein eskatzaileri ematen zaion (zerrenda).
- b) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko epeak.
- c) Dirulaguntzaren izaera eta hura emateko baldintzak eta betekizunak.
- d) Gainerako eskaeren ezespena.

9.5. Behin-behineko ebazpen proposamenean ageri den dirulaguntza zenbatekoa txikiagoa baldin bada aurkeztutako eskaeran ageri dena baino, erakunde hartzaileak eskaera birformulatze eskatu ahal izango du, eman daitekeen dirulaguntzaren konpromisoak eta baldintzak egokitze. Instrukzio organoak eskaerari oniritzia eman eta gero, jarduketa guztiekin batera igorriko zaio organo eskudunari, ebazpena eman dezan.

10. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA ETA GASTUAK JUSTIFIKATZEA.

Dirulaguntzen hartzaileek frogatu beharko dute jasotzen dituzten funtsak dirulaguntza emateko oinarria izan zen helbururako erabiltzen dituztela, bat etorri Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorraren 19. artikuluan eta oinarri hauetan ezarritakoarekin.

10.1. Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da. Lehenengo zatia, dirulaguntzaren ehuneko 80, dirulaguntza emateko ebazpenaren datatik aurrera ordainduko da aurrerakin gisa, eta bigarren zatia, gainerako ehuneko 20a, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Horiek justifikatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Gauzatutako gastuen zerrenda zenbakitua, deialdi honetako III. eranskinaren arabera. Honako hauek zehaztu beharko dira: hartzekoduna, zenbatekoa eta fakturaren eta ordainketaren data.

Eranskin horrekin batera fakturak aurkeztu behar dira, bai eta ordainagiriak edo ordainketa egin izana frogatzen duten bankuko laburpenak ere. Eskaeraren egunean entregatu ez diren ordainagiriak 2025eko abenduaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Gastuak ez dira ordainduko baldin eta fakturretan datu hauek ageri ez badira: fakturaren zenbakia; faktura egin zeneko data; izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa, hala faktura eman behar duenarena nola eragiketen hartzailearena; zerga administrazioak emandako identifikazio fiskaleko zenbakia; helbidea, hala faktura eman behar duenarena nola eragiketen hartzailearena; eragiketen edo gastuaren xedearen deskripzioa, eta balio erantsiaren gaineko zergaren oinarria zehazteko behar diren datu guztiak adierazi behar dira.

Langile gastuak justifikatzeko, nomina eta erakunde edo pertsona onuradunaren Gizarte Segurantzako TC2 agiria aurkeztu behar dira. Nominekin eta TC agiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, eta hartan adierazi behar da diruz lagundutako jarduerari egotzi zaizkiola gastu guztiak. Denbora eta egotzitako kopuruak ere zehaztu behar dira (IV. eranskina). Hala badagokio, proiektua gauzatzeko besteren konturako langilerik ez izatearen zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Langile gastuak badaude edo profesionalek PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, 190 ereduaren kopia bidaliz egiaztatu beharko dute atxikipenak ordaindu dizkiotela Arabako Foru Aldundiari.

10.2. Dirulaguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, pertsona edo erakunde hartzaileak eskaeran horretarako adierazi duen kontu korrontean.

10.3. Dirulaguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde hartzaileak justifikatzeko baldin badauka udal honek emandako beste dirulaguntzaren bat, edo aurreko dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu bazaio eta ez badu hala egin. Dirulaguntza ezin izango da ordaindu erakunde onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzulketa bidezko zatitza jotzen duen ebazpen baten ondorioz zorduna bada.

11. DIRULAGUNTZA GALTZEA ETA HURA ITZULI BEHARRA.

11.1. Ondoren adierazten diren kasuetan itzuli beharko dituzte jasotako kopuruak erakunde hartzaileek, Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorren 23. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, bat etorritik Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren ezarritakoarekin:

a) Dirulaguntza ezarritako baldintzak faltsutuz eskuratu bada, edo dirulaguntza ezin ematea eragingo luketen baldintzak ezkutatu.

b) Ez bada betetzen, osorik edo partez, dirulaguntzaren xedea, jarduera edo proiektua, edo ez bada jokatzeko dirulaguntza funtsatu zuen jokabidearen arabera.

c) Ez bada betetzen justifikatzeko betebeharra, edo ez bada behar beste justifikatzen, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 30. artikuluan eta oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. eta 15. artikuluetan jasota dauden egiaztatze eta finantza kontrolerako jardunei oztopoak eta aitzakiak jartzen bazaizkio; saihestu edo galarazi nahi badira, edo agirien kontabilitate, erregistro edo kontserbazio betebeharrak betetzen ez badira. Hau da, ez badago egiaztatzerik jasotako dirulaguntzari emandako erabilera, helburua lortu den ala ez, diruz lagundutako ekintzen errealitatea edo erregulartasuna, edo helburu bererako estatuko, Europako edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuaren batek emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak jaso diren ala ez.

e) Oinarri hauetan, Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren eta lege hori garatzen duen erregelamenduan (887/2006 ED, uztailaren 21eko) jasotako gainerako kasuak.

11.2. Erakunde edo pertsona onuradunak, edo, hala balegokio, erakunde laguntzaileak, erabat edo ia erabat betetzen badute helburua, eta erakunde horiek egiaztatzen badute nabariki jardun direla konpromisoak betetzen, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioz zehaztuko da itzuli beharreko zenbatekoa.

11.3. Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorren 14. artikuluko l) letran jasotzen den kasuan, bat etorritik Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 19. artikuluko 3. apartatuarekin, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gaineratik eskuratu den soberakina itzuli beharko da, bai eta dagokion berandutze interesa ere.

11.4. Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Erriberabeitiko Udalaren dirulaguntza deialdiaren oinarrietan, Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren, Dirulaguntzen Lege Orokorren eta haren erregelamenduan araututakoari lotuko zaio.

12 ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK.

Hauek dira dirulaguntza jasotzen duten erakundeen betebeharrak:

12.1. Udalari aurkeztea diruz lagundutako kontzeptuen jarraipena egiteko eskatzen zaizkion agiriak.

12.2. Erriberabeitiko Udaleko kontuhartzaitza orokorrak dokumentazioa egiaztatzeke eta finantzak kontrolatzeko gauzatzen dituen jarduketan mende jartzea, bai eta Herri Kontuen Eus-
kal Epaitegiaren edo eskumen hori duten beste organo batzuen gaineko legedian jasotakoen
mende ere.

12.3. Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumen-
tuak, dokumentu elektronikoak barne, horiek egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko.

12.4. Jasotako dirua itzultzea, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

12.5. Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak eta betekizunak betetzen
direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarri izan den jarduera egin dela eta helburua
bete dela ere.

12.6. Organo emaileari jakinaraztea bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo
baliabideak lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.

13. INTERPRETAZIOA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA.

Oinarri hauetan jasotzen ez den guztian, honako hauek aplikatuko dira: Udalaren Dirula-
guntzen Udal Ordenantza, Udalbatzak 2016ko uztailaren 14an egindako bilkuran onetsia eta
ALHAOn 2016ko azaroaren 7an argitaratua (124. zenbakia); Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra
eta haren arautegia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta gainerako
araudi aplikagarria.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013
Legeak II. kapituluaren, 8. c) artikuluan, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko
2/2016 Legeak II. kapituluaren, 55. i) artikuluan xedatutakoaren arabera, udalak, bere webgunea-
ren bidez (<https://www.riberabaja.eus/eu/inicio-eus/>) eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren
bidez argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak eta laguntza publikoak, eta haien zenbatekoa,
xedea edo helburua eta hartzaileak adieraziko ditu (DBLOko irizpideei jarraituz).

14. DATU PERTSONALEN BABESA.

Erriberabeitiko Udaleko tratamendu jardueren erregistroko dirulaguntzen tratamenduari
dagozkion datu pertsonalen tratamenduak egiteko arriskurako segurtasun maila egokia ber-
matzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko dira, eta interesdunei haien datu pertso-
nalen tratamenduari buruzko inguruabarren berri emango zaie, xedapen hauetan ezarritakoari
jarraituz: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena
eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari
eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua
(Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, eta 3/2018 Lege Organikoa,
abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA.

Tratamenduaren arduraduna.

Erriberabeitiko Udala.

San Martin plaza 1, 01213.

Ribabellosa (Araba).

Telefonoa: 945 355116.

IFK: P0105300H.

Tratamenduaren helburuak eta oinarri juridikoa.

Udalak emandako dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.

Tratamenduaren arduradunari eskatzen zaion lege betebeharrak bat betetzeko da beharrezkoa datuak tratatzea.

Hartzaileak.

Datu pertsonalak honako hauei lagako zaizkie:

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen argitaratuko dira.

Beste administrazio batzuk.

Eskubideak.

Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar du Erriberabeitiko Udalaren helbidera, bere nortasuna egiaztatzen duen dokumentuarekin batera, edo korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoari hasiera eman.

Jatorria.

Datuak hemendik lortu dira:

Interesduna bera edota ordezkaria.

Beste administrazio batzuk.

Argibideak gehiago jasotzeko bitartekoak.

Webgunea: <https://www.riberabaja.eus/eu/inicio-eus/>.

Telefonoa: 945 355116.

Ribabellosa, 2025eko maiatzaren 20a

Alkatea

AMADO MARTÍNEZ DE ITURRATE CUARTANGO